


ZARR

BIZKAITARRAI
3IZKAIERAZ
39n. ZENBAKIA
URTARRILLA
- 1981 -



ELANTXOBE

ITXAS-GIZONAK ETA ARRANTZALEAK
EUSKALERRIA MAITATZEN ZALEAK

URTE BARRI!

Pozez artu dogu gizakiok Urte Berri au, pozez eta itxaropentsu. Orregaitik izan ziran gabon-zar gau aretako eresak, danbadak, ordulariaren kanpai-otsak eta olakoak.

Aspaldiko urteak naigabe ta ardura asko ta aundiak ekarri dauskuez, baiña *orren arriskua* urte barri onetan be ba-dagoala uste izan arren, asiera onetan itsurik gagozelako-edo, beti pozez egoten gara. Eta ondo dago! Itxaropena gizonarentzat bizirik erdia da.

Joan ziran gabon-jaiak, euren Olentzero ta guzti. Batzuntzat erlejiño-giro beroan, beste batzuntzat euskal-giro onean. Arduraz be izan dira baten batzuk. Ona emen zer-pentsau emon dauskun berbaldi bat.

Gure gabonak erdel-giroa daroe. Barri Ona bera Israeldarren jakintzaz jantzita artu genduan, gero erromatarrak euren izakerea sartu eben or, ara sartu ziran Jermenia'tarren giroan sortu zan abenduaren 25'eko jai onetan.

Baiña zelan euskal giroz jantzi Kristo gizaki guztien salbatzaillea gugana etorte ori: Olentzero igar-learen giroan, kismiren edesti-barruan,, zubillaroko ospakizunen erri-bidean? Zerbait gertatzen diardue eleiza-aldean.

* * *

Jai-usain orretan, amaitu dogu urte zarra eta emen daukagu barria. 1980 zenbaki biribilla zan, ez ain-beste 1981. Garrantzitsua izango ete dogu gure Erriaren kondairan?

Ekonomi-arazoetan larria igazko urtea! Itxaropen aundi barik sartzen gara, arlo orretan barrira. Ba-tez be, aspaldion Ian barik dagozan eta olakoen saria artzea amaitzen jakenen urte mingorra dogu au. Zenbat sendi geratuko diran egoera larrian.

Euskal-Askatasunaren burrukan, azkenerantza España'ko Agintariaren ikustaldia izan genduala, amaitu zan urte zarra. Eta orduan be, pozbide aundi barik, naizta itxaropena galdu ez.

* * *

Izango ete dogu Araudia bere bide zuzenean jarteko urtea. Ez litzake asiera txarra!

* * *

Argia ta illuntasuna batera erakusten dauskuzan urte onetan, asteko, erantzupen bi sortzen jakuz: Eroapena ta estatutuna.

Eroapena, bearrezkoa. Dana ta orain eskatzen dogu baiña ori orrelan ez dala lortzen ondo dakigula. Itxaron egin bear!

Baiña beste alde batetik estutasunaren ziltzaldiak eragiten dausku. Geu mobitzen ez ba'gara, ez dogu ezer eskuratu. Eta olan da. Erri guztiaren tentaldia au, baiña geien gazteena.

* * *

Itxaropen utsa ez da ezer, baiña estutasun utsa gitxiago ete dan.

Itxaron, arduratu ta Ian egin, orra or urte barrirako jokabidea.

Gogoratu arabiarren esaldia: Etxe-aurrean itxaron egizu eta andixek igaroko da zure arerioaren gorpua. Eta ez aitzu alegi aretako iñurriarena: Udan abeslari izan ba'zara, neguan dantzeari ekin. Ez ete da orain lanari ekiteko udaldia?

GABONAK ZUMAIAN

(Orain 80 urte)

AZPEITIA'TAR JULENE ZANAREN IDAZLANARI OARRA

Urteak diralatik, erruz edo erru barik, Azpeitia'tar Julene'gaz zordun aurkitu izan naz:

Gabon batzuetan, Bilbo'ko Erri Irratirako, Doña Juliana'ri itaunketa bat egin gura izan geuntson. Baiña ez neban etxean aurkitu eta Euskalerrri'ko Gabon-ospakizunen gure iratsaio, aal genduanegiz egin bear gendun.

Gero, Doña Juliana'k, Gabon oiturak dirala ta lan bat egiteko bere bi-lla ibilli nintzala jakin eban: baiña ez norako eta zertarako zan. Eta bizkor eta gogotsu, berak oi ebanegiz, gaur lenengoz agertzen dan lan polit au idatzi-ta ekarri eustan.

Orduan, iñora biartzeko berandu zanez neu beragaz geratzeko esan eustan eta neuk argitaltzeko, nai nebanegiz, eta nai neban eran, eskubide guz-tiak... Olangoxea genduan gure Doña Juliana!...

* * *

Gauzak txarto asten diranean baiña, alan jarraitzen dabela dirudi: urrengo urtean, argitaltzeko berandu egin jatala esan eusten aldizkarian.

Bialdu neban irugarren urtean, eta eldu zan ala galdu zan, jakin ez ge-ro... Atsekabe andia i7,an neban et; uste dodanez, berak be bai. Eta orrexek mindu nindun geien...

Doña Juliana'k, bein baiño geiagotan bere kezka au agertu eustan.

Zer dala ta, Jesus Gure Jauna, ain txirotasun aundian jaio izanik, guk Bere jarraitzaileok, orrelango. Gaboñ ospakizunak egiten ete doguzan?...

Ain zuzen be, beiñolako gure irratsaio ori ortik joian: aintziñako gure erri oiturak Gabonetan: sendi barruan, jentil giro ta kristauaz... Eta gaurko kontsumo-gizartean sarturik noraiño garoazan jentilkeriak, kristautasunak bera azpiratzen ez ba'dau.

* * *

Gabotiak, jai bereziak, batez be, urtearen barruan joandako adiskide minak gogoratzeko! Aurtengo Gabonetan, bararizko gomuta maitekorra izan dot gure Azpeitia'tar Julene'rentzat. Eta beragaz batean ezin aitzu, oraintsu joandako beste gipuzkoarra: Xabier Peña! Bata, itxastarra; bestea legorrekoa. Bata, betidanik ezagutu nebana; bestea, irakasle izan nebana! Biok, euskaldun-langille nekatueziñak eta apalak! Kristau zintzoak! Biok, Bizkaia'ri ainbeste mezede egindakoak! Bizkaia'ri lagundurik, Euskalerrri'ari laguntzen eutsoela jakifiñik!

MAITENA'K

JANARIAK

Nere adiskide on batek eskatu deustalako biartxo bat egitera noa, Gabon gabeko apartatzaz. Obeto esanda, ni neskatotxoa nintzanean, nere errian, ZU'ma a'n, Gabon gabean egiñ oi zan apartatzaz.

Ni neuk, ez dakit aberatsen etxietan zelako aparta izaten zan, gu ez gintzazan aberatsak-eta, baiña gure moduko etxietako Gabon-apariak, aldatu eziñeko «menu»au zuan:

«Aza olioak pil-pil,
bixigua zirt-zart,
gaztaiña erreak pin-pan
eta aija gozo-gozo.»

OSAGILLEARI TA ABADEAR- RI

Au «menu» au, bear-izane-koa zan Gabon-gabeko apartan eta uste dot aundiketxietan be aza-olioak eta bixigua, nai ta nai ezkoak zirala.

Gure amak beintzat Parroku jaunaren eta Osagille jaunaren etxera, baratzan zanik azaburu aundiena ta ederrena, eta bixigu aundi bat bialdu oi zituan Gabon oparizat. (Ai areik bixiguak, pe-zeta batean libra, Zumaya'ko kai-jean (muellean), Gabon-besperan «nai-dozu, nai-dozu» saltzen zira-nak, oindiño Zumaya'tik bixiguta-ra kaleruak arrantzara juaten zira-nean!)

* * *

JANARI - ORDEZ

Etxeko neskato zarrena nintzalako ni joan oi nintzan eroatera, ta osagille jaunaren etxean barrura sartzen ninduen eta sagar gozoz betetako olezko kajatxo bat ematen eusten, baiña amak dirurik ez artzcko esaten euskun beti.

Parroku jaunaren etxean ere, gozoki zerbait eman oi eusten eta Parroku jaunak, ea aitajauna nola zebillen galdetu oi eustan beti, eta «gorantzi asko nere orde z aitajau-nari» esaten eustan urtctean.

. . . *

EGUNARI BERE A

Beraz ara emen Zum'aya'ko Gabon-aparia oraiñ larogei urte:

Aza-olioak pil-pil,
bixigua zirt-zart,
gaztaiña erreak piri-pan
eta aija gozo-gozo,
«egunari berea emoteko»
esan oi zan lez.

Eta biaramonean, adizkide ta senideak alkarri: «Bart apari ona egiñ zenduen⁷» galdetzean, erantzun oi zan: «Bai jaunari eskerrak, egunari berea emon geuntsan».

. . .

OITURAK

Nire adizkidcak jakiñ gura dau ea Gabon gabeko aparitan, siniskeri-sorginkeru usaiñik eukon gauzik egiten ote zan.

Lenengotan ezetz esan neutson baiña gero oroitu nintzan auxegaz: gure etxean ogi osoa asitzen zan, lengo ogia amaitu barik egon arren eta aitajaunak ebakitzen eustson lenengo zatia, gorde egiten zan urtean jateko.

Gure amak zapi garbi batean batuta jasotzen eban eta nun edo nun gorde, baiña «urrengo urtean», edo aurkitu ez, edo jateko gauza ez zala billatu oi genduan.

. . .

ETXE - APAINKETAK

Berarizko apainketarik etxeetan ez zan egin oi, baiña gure etxean Gabon-gabeko maian berarizko maikozapi bat ipiñi oi gendun, urte osoan ez «*San Pedruetan*» eta ez «*San Telmuetan*» ateraten ez zana, nere amandre zanak goruetan irututako ariaz, «Itziar'ko euliak» egiña, eta bira osoan, nere amak, karlisten gerratean, Monja Zarretan izan zan ikastolan egin-dako parpallakaz dotoretua.

Len esan dodan lez, Gabon-gabeen bakarrik erabilten genduan maiko zapi ori.

GAZTAIÑA ERREAK PIN-PAN

Gaztaiña erreak erretzeko danboliña, burdiñezko txapagaz egindako zulo askodun zilindro bat zan, itxi ta edegi egiten zan atetxo bategaz.

Gaztaiña gordiñak sartu eta erreak atera, emendik egiten ziran.

Tramankulo au lagatzetik eskegiten zan, eta azpian sua egin, eta erdi-erditik-edo ardatz burdiñezko bat eban, nai aiña bira emoteko. Birak emon bearrekoak ziran gaztaiñak alde guztietatik berdin erretzeko.

Danboliñeko gaztaiñak, pin! pan! pun! asten ziranean, sua gutxitu eta lantzcan bein atera batzuk eta ikusi ea ondo erre ote ziran.

Eta egiten ziranean, jatxi leatze-tik, zapi garbi baten gañera bota, ondo-ondo batu eta sutondoan berotan utzi.

Jan bear ziranean, zapatik atera baiño len *egurrezko* mallu bategaz kolpe batzuk eman, eta zapian bertan atera maira.

* * *

SUTONDOAN

Gaztaiñak, danboliñean *erre* oi ziran, su ederrean, lenengotan aunditxoa, eta bein tiroka asten ziranean, su txikiagoaz, eta poliki, edo emekiago.

Sukaldean ez zan orduan ez, Ingalaterratik etorritako, sua eskutuan dauan txaparik, eta gitxiago tximist sukaldetik eta butanorik. Jateko guztiak egurraz edo egurrikatzaz egiten ziran.

. . *

IKUSTEN EZ DAN SUA!

Urteak igaroaz, gure etxean ere sartu zan Ingalaterra'tik etorritako sukalde-txapa.

Gure aitajaunak ez eban gura iñundik-iñora ere, sukalde mueta ori etxean ipinterik.

Gure amak, txapa orren baldintza onak esaten eutsazanean, berak *argumentu* au bakarrik erantzuten zion: «Pijo naun ni ikusten ez dan suakin. Ez diñat uste, su orrek berrotutako arpegi gorririk izango degunik aurtengo neguan».

AZPEITIA'TAR JULENE'K

PILIPINETAN!

1;D!0r11 JJ^1!sf Jf

REV. FATHERS ARTHUR RAEI A\U

FRANCISCO Rita ERRIA

IN Tn 5 dVC1 ,TY Diⁱ .1Est,5



;',iurJLy-

(lky c

Pilipinetatik gure irakurle ta adiskide aundi dogun Etxebarria'tar Paxe aita josulagunaren barriak artu doguz.

Beste euskaldun askoren antzera, erbestean, Pilipinetan, daukagu gure idazle ospetsu au: Urriñean eta ba kartadean.

Eta urteak aurrera doakuzala-ta (nori ez?), saridun izateko sasoa eldu jake gure adiskideari eta, olakoetan oitura dan lez, omenaldi ondo irabazia egin dautsoe bertako josulagunak, adiskideak, lankideak eta ikasleak.

Joan dan urrillaren 25 ean eta llo ilo urian izan da, berarentzat ain pozgarri gertatu dan- egun aundi ori. Beragaz batera Arthur Baur aitari be bai.

Etxebarria aitak pozik artzen dau gure ZER urriñeko lurralde aretan eta gogotsu irakurri be. Emen egiten dogun lan onegaitik eskerrik beroe

nak eta zoriona opa dauskuz. Ez dira txarto etorten, andik eta ortik kezka eta azierpenak sortzen diran aldi-tan.

Gure abizenak zuzen esatea gatx egiten jakela angoai diñosku adiskide onek eta ez da arritzekoa Españata rren ikus-irratian entzuten diranak entzun ezkeru.

Esaterako, Berrio-Otxoa entzun eta «Perrochoa» idatzi la olakoak. Ori orrelan an izanik, Zeanuri n «Olivares» zelan sartu zan gogora lzen dausi mixiolari josulagun onek. Eta ez dago oker, Zeanur ko «Olivares» [arrak euskaldun zar eta beti koak dira-la; ba-dago an, gaiñera, «Ollibiz» izeneko baserri bat, jatorriz «Ollibarriz» edo olako zerbait izango zan. Gogoratu «oilla-lur», «Oillibar», «oillarre» ta olakoak.

Eta bere aolkua, onua, be emoten dausku Etxebarria aitak: Lanean jarraitze-ko, «Ekin eta jarrai». Onartzekoa au be.



Azkenean, siniste-bakoak be ba-dirala an inguruan eta sinismenera eto rri daitezcan gure otoitzak eskatzen dauskuz. Orra or, rixiolari zarraren gogo gaztea! Ezin ukatu olako b o liaz eskatua!

Eta amaitzeko, zer esango dautso gu urrineko adiskideok Pilipinetako mixiolari gogotsuar ?

Eleizearen Barri-zabaltzean egin dauan lan ederragailik, zoriona! le nengo.

Eia, bigarren, eskaritxu bat: Ira kurten doguz zure lanak euskerazko aldizkarietan, baiña ba-dakigu Idazti Deuna zabaltzean euskal-lan garran tzijsua egin dozuna. Azaldu egiguzu ZERen zure lan ori, irakurle guz tionizal jakingarri dala uste dogu-ta. Aldi-aurrez eskerrik asko eta zoriona!

OLAZAR'tar Martin'ek

ARAZOARI BEGIRA

LAN GATXA

Ekonomi arloatzaz gaur egunean idaztea ez da bapere erreza. Ille onetan, *lanik ez daben langilee-tzaz, agertu diran estadistika-lumeroak*, milloi ta erdira dijoaz.

Eguneroko bizimodua azaltzen jartzen ba'gara gure gizartean, arrituta geldituko giñateke. Ainbat eskalari txiro, kale otzetan eske ta lotan, emailleak emoteko dirurik ez, Ian *apur bat* dabenak errege gaur egun... au dok mundua!

* * *

AUSARTASUNA

Arlo onetan gure ekonomi ustel au azaldu nai neuke, al dodan zeatz eta meatzen.

Gai onetan optimista izatea ez da bapere egokia baiña gitxienez gerorako urteera egoki bat erakustea edo azaltzea, izango litzateke nire elbururik atsegin

Gaur egunez, orrenbeste ekonomilari, ta jakitun, orrenbeste politikolari... baiña zertarako?

Argi ikusten da, iñor lanerako prest ez dagola, baiña zelan aurrera atara egoera larri au lanik egin barik?

Nor izango litzateke kapaz gaur, langileei grebarik ez egitea, eskatzeko edo ezin dabela grebarik egin, giza-ekonomi-politika egoerak ezin beretu daualako?

Iñor ere ez, langileak faszista bezela artuko leuke-lako.

Baiña egoera onek aurrera jarraitzen ba'dau denpora geiago, «Kraak» egingo dabe estamentu guztiak, inflaziñoaren bidez.

* * *

BIDEAK

Langileen alde jokatu bear geunde, baiña era egokiago bategaz, urtenbide zentzundunago bat jarraituz, geroari begira.

Esate baterako, Nervacero'ko urtenbidea ez da izan bapere ongarrri gure ekonomiarentzat. Arazo ori, politikaren bidez soluzionatu dalako, ekonomikoki izan barik.

Emen ikusten doguna auxe da: langilleen indarrak, sarritan gobernua lurperatu egiten dau, gizartearen laguntza ba'dau, eta orduan gobernuak, langilleen eskariak betetu egiten ditu, egoera orretatik urtetzeko, baiña geroari begiratu barik.

Lantegi orrek barriro ere arazo bardiña izango dau, bere arazo bereziak, ekonomiko ta teknologikoak, ez diralako bideratu, eta krisis aundi au igaro ondoren, beste aundiago bategaz aurkituko da.

* **

LANIK - EZA

Euzkadi'n, *buruz aurtengo abuztuan emondako lumeroak* oneixek dira: *2uneko* 10,03, Euzkadi guztiari dagokionez. Bizkaian euneko 10,43 ta Gipuzkoan 10,15 Araban apur bat gitxiago ta Nafarroan ere bardin, euneko 7,58, 9,47 Españaikoa izanez.

Aurtengo urte erdian lanik-ezak euneko ogeitamar baten igon dau, eta lumero oneik benetan ere arritze-koak dira, naiz ta itxaropena ez dogun galdu bear, benetazko lumeroak beste euneko bost t'erditik gora egogo litzatekez, Bizkaiak euneko 16,55 lanik barik izanez.

Emendik denpora gitxitarako euskal gobernuak ez ditu izango bear dituen eskubideak arazo oneri urteera egoki bat emoteko.

Gure industria au goratzeko edo gitxienez bultzatxiki bat emoteko derrigorrezkoa dogu inberziñoa, au barik ez dago zer egiñik, baiña inberziño au egin daiten, derrigorrezkoa dogu ere siñismen bat, giza-bake bat sortu, eta lagille-batzordeak gogortu, edozein arazogaitik kalera urten barik.


Kapitalista edo dirudunak, bake edo estabilitate bat ikusten dauanean laster egingo ditu bere inbersiñoak baiña bestela iñoiz ere ez.

Burukide gitxiago ba'legoz, eta batzorde edo sindikatuetan fede geiago ba'lego, eta euren eskuetan itxi lan-arazoak, gure Euskalerrria beste erri obeago bat izango litzateke.

Jo dagigun guztiok aurrera, baiña beti batera, ba-koitzaren norberekeriak alde batera itzirik, ta beti erriaren alde jokaturik.

MUNiategi'tar Asier

AZTERPENA



Idazpurua: Euskal Idazleak Bizkaieraz
Idazlea: Carmelo Etxenagusia (eta Taldea).

Argitaldaria: Labayru Ikastegia.

Irarkolea: Talleres Graficos «El Noticiero Bilbaino».
Urtea: 1980.

Euskerearen *azterpen-gaietan Labayru Ikastegiak* egiten dauan lana, *gogoangarria* da. Euskerea ondo aztertzekeo bearrezkoak diran liburu guztiak argitaratzen dauskuz eta *oraindiño gai* asko *ingurraztietan* dagoz, *irarkolaratu* barik.

Arlo batzuk gogoratu dagiguzan: Deklinabidea (*Zarate*), Aditza (*Eguskitza*, Irazola), Literatura-*azterbideak* (*Zarate*, Etxenagusia), Joskera (*A rejita*), Idazkera (*Za-*

-ate). Gai oneik osotzeko, *abostegi* edo *fonetikaren* utsa *aurkitzen* dot. Eta ez *litzake* gauza *gaitxa izango* gai one-
rré buruz *liburuska* bat *osotzea*. 1{casgarrá izango litzake.

LORATEGIA

Gure elertiaren *kondairea* ondo ikasteko, eragozpen bat aurkitzen dogu *ikasleok*: *Idaztiak* edo *idaztietako* «tes-
u»'ak, zatiak *aurkitzea*. Gaur onetarako lenago baiño erreztasun geiago dago, baiña idazleen arloa zabala da *ta lorategi* edo *antoloji* batzuk bearrekoak.

Arlo onetan *Zarate'ren* Bizkai ko idazleak *liburua*, *'gokia* ta ederra izan da eta bide orretatik bere *adiskide* orreri jarraitzen dautso gure *Karmelo'k*. Dana dala, *gau-*
a bakoitxa bere lekuan izan daiten, ez aitzu Karmelo orretan Mikel baiño *aurreragokoa* dala. *Karmelo'rei le-*
nengo Lorategia antxiiagokoa dogu.

Idazleen zatiak, gitxienez, aurrean izan eta aztertu barik ikasten dan *literatua*, elertia, oiñarri bakoa da. Orregaitik diñogu olako liburuak *ikasleentzat* ain be-
rrezkoak dirala.

KONDAIRA-ZATITZEA

Gure elertiaren *kondairea* egokiro ezagutzeko, muga *batzuk*, *aldien* arteko mugak bear doguz. Gero muga-arte bakoitxean diran berezitasunak al danik zeatzen jakin, idazle bakoitxa non *jarri* jakiteko.

Ez da au lan erreza. Bear ba da eziña izango da. *Gazletereak* eginda dauko eta munduko elerti-*kondairean* be bai. Baiña gurea ez da besteen muga *-barruetara sar-*
tzen: berezia da.

Gaiñera, muga-arte *orreitan* ez dira idazleak beti *ego-*
kiro sartzten: Aldiz eta *tankeraz nasteak* izaten dira. Idazle bat aldi biren barrura sartzten da eta bere *aldiko*
idaz-*tankerea* baztertu egiten dau sarritan... Baiña *ikas-*
bide legez, olako zerbait bear da: Gure burua *eratuteko*
laguntza izaten da eta idazle bakoitza bere tokian *ezarte-*
ko erreza.cuna *emoten dausku*.

EUSKAL-ELERTIAREN ZATITZEA

Gure jakintun batzuk; ezelako argitasun barik, gizal diz mugatzen dabe elertia. Esaterako Mitxelena k eta Vi lasante k. Beste batzuk gizaldiak eta idaz -tankerak nas lean artuta, esaterako. A. Onaindia k. Zarate k, ostera, onetan bide egokiagoa ekarri eban: Asierako idazleak, Larramendi tarrak, Arana tarrak, gure aldikoak. Ego kiago izango zan idazle baten izena barik tankerea edo berezitasuna idazpuru lez ipintea.

* * *

ETXENAGUSIAREN BIDEA

Karmelo k, erri-literatura alde batera itzita, onelan zatitzen dau: Idazle zaar edo klasikoak, gerra-aurre koak, gerrostekoak.

Zatiketa au txiro aurkitzen dot: Idazle zarren izen pean iru gizaldi sartzea geiegi da eta, naizta gudaldiak gar'antzi aundia izan gure elertiaren kondairan, ezin ja rri lei ori mua bakar lez.

* * *

ERISKO BIDE BAT

Onaindiaren zatitze-bidea gogoratu dagigun: 1) Asieratik Larramendira arte (XVI-XVII-XVIII); 2) Emeretzigarren mendea; 3) Arana ta Azkue'ren belaunaldia (1895-1920); 4) Aitzol'en belaunaldia (1921-1940); 5) Zaitegi ta Orixe'ren aldia (1941-1960); 6) Gaurko giroa (1961-..).

Zatiketa oneri ondo deritxat, baiña zati bakoitxaren izenburuak obeto zeaztu bear dira, esaterako onelan: 1) Berbizkundea (Renacimiento); 2) Aldelari edo «apolojisten» giroa edo Larramendi tarrak (Larramendi bera be emen sartzen dala); 3) Barrizkundea (Azkue ta Arana.); 4) Euskerearen eldutasuna (Aitzol.); 5) Zapalkuntza aundiaren aldia (Zaitegi.); 6) Batu-berri ta Erribide ren giroa.

Geratu beite gai obeto sakontzeko.

* * *

ERAKUNDEA

Liburu eder oneri, erakunde aldetik beste uts batzuk be, neure ustez, aurkitu leikioz.

Erri literaturaren arloa, naizta gai au garrantzi aundikoa izan gure elertian, luzeegia: 60 orrialde daroaz.

Idaz le bakoitxaren bizitzako zeaztasunak labur-labur eta egokiro dakarz, baiña ez da agiri ezelako aldi ta tan kera zeaztasunik. Ori elerti-liburuetan agertzen da, egia da, baiña olako zerbait ondo etorriko zan liburu onelan be.

Idaz-zati bakoitxaren ostean datozen iztegitxuak, ederrak, gozoak, egokiak dira, baiña ez ete dira laburregitxuak?

* * *

AZTERKETA-BIDEAK

Emen labur-labur azterpenerako jarten diran oarrak eta zabaltzen diran bideak egokiak dira, Zarate k jarrita koak baiño egokiagoak.

Oinkadak: Irakurri, ulertu eta giroa aztertu; oartu ta barriro irakurri, gaia, tankera, bertsoa ba da puntua, ta olakoak ikusteko eta edertasuna zertan dan billatzeko; zintzotasuna; idaztea.

Kritika-eskolak be egokiro gogoratzen ditu, gaurkota sun aundiaz gaiñera; trebebideak, teknikak be agiri dira; adierazi ta adiera learen arazoa argi dago, baiña zatia ren erakundea, «estrukturea» zelan agertu ez dot argi ikusten eta ori agertzeko marratze-lan batzuk zelan egin irakast a be ondo izango zan. Gaur asko erabilten da ori eta adierazteko bide oso egokia da: irudibidez, marrazki bidez agertu erakundea.

* * *

IZTEGIA

Liburuan agertzen dan euskerea oso egokia da. Neure eritxiak agerizekotan oar bi egingo neuskioez Karmelo ri eta bere taldeari: Zergaitik sartu atxea bizkaieran? Badakit au geure arteko arazoa, eskola-arazoa dana, baiña nik neure eritxia agertzen dot. Eta iztegiari buruz, berba batzuk nik ez neukez erabilliko. Zerrenda luzerik ez egi tearren, «teknizismoa», «zientifikoa», «afektibitatea»... Nik beste bide oneitarikoen bat artuko neuke: «Teknika keria», «zientzizkoa», «afektu -saillea» eta obeto «Trebeke ria», «jakiturizkoa», «maite-bidea».

Dana dala, ezin ukatu bakoitxak egiten dauala bere aukerea eta Karmelo'k be egin dau berea.

Karmelo ta beste talde-kideok! Eskerrik asko egin dozuen lan ederragailik eta parkatu nire ausartasun geiegia. Aundiak zaree!

OLAZAR'tar Martin'ek.

«OLERTI EGUNA»

OLERTI 1980



Ona emen aldizkari barri bat.
Olerkarien, poetan, aldizkaria da.
Kontuz onegaz Parnaso-gaiñean dago)
Irakurri olerki-giroan! Ulertu Olerkari-bio-
tzazl

Eta eskerrak emon olerkariari eta EUSKO-
IKASKUNTZA'ri.

Amaika urte egin ditu isillik. «Ez bere erruz
goitiko aginduz baizik» diño aita Santi'k sa-
rrean.

Lengo domekan ospatu zenduen,
Larrea'n, Urteroko Poedi-Eguna. Ez
neban izan joaterik, baiña ospatu ei
zenduen.

Bai, olan da. Oitura egiñik gure
arteana egun orrek. 1959'an asi giñan
berori ospatzen eta arrezkero, urte
mordoan, olantxe jarraitu dogu, iñoiz
be utsik egin barik.

—Zelako egin-jardunez izan zan
aurtengoa?

—Egitaraua beti lez izan genduan.
Goizeko amaika t'erdietan, Meza
abestua, bertsolari, kantari ta bestea-
kaz. Meza asikera Gerardo Bernao-
la Usansolo'ko seme argiak bertso
sentikorrek abestu zituen. Mezea,
AA. Onaindia ta Goiria'k esanda, il-
barri dogun Xabier Peña Albizu eus-
kaltzale zintzo ta euskera-irakasle
errimearen omenez izan zan.

—jente asko?

Larra'ko eleiz polita bete-beterik
egon zan, bai olerkariz eta bai oster-
rantzekoz.

—Eta ondorea?

Ondorren? Ba-dakizu, beti lez au
be. Sariak banatu genduzan. Eta
oneik izan dira aurtan sariak eskuratu
dabezanak: Lirika saillean, Aita Luis
Arostegi, karmeldarra, bere koplak
(*Garbiak, Joanak eta A gur*) *bikaiña-
kaitik*. Poema arloan, Martin Ugarte,
Brinkola'ko semeak, here «Argien ospel»
linagaitik, eta bertsolari barru-
tian, Belloki'tar Agustin legazpiarrak,

bere «Amona eta Opilla» deritxon la-
naren alde.

Irabazleak izango eben pozik, ez-
ta?

Jakiña! Nork ez eder diru-pizkat
eta osplea? Sariak jaso ta olerki sari-
tuak irakurri ondoren, entzule bako-
txak olerki ta poesiar buruzko eritxia
emon eban, nasai ta zabal. Interesga-
rriak izan oi dira onako alkar-izke-
tak, batez be giro adikor eta pozga-
rrian egin ezker. Era orretan egin
zan gure artean. Danetariko uste ta
eritxiak agertu ziran.

Azkenea, ekiñaldi au amaitzeko,
Xabier Peña zana gogoratu genduan.
Baita merezi be! Ogei urte oneitako
Olerti Egunetan geugaz izaten gen-
duan beti, irribarretsu, adeitsu ta La-
guntzaille. Dagoen zorion-lekutik ez
gaitu itxiko lagundu barik. 'Bai elei-
zan, bai poesi-banaketan eta bai baz-
kal orduan biziro min izan genduan
danok aren utsunea.

A. O.



GARBIAK

*Aratz-garbiak zare:
berez-errez dozue
ontasunaren siñiste.*

*Alai-garbiak:
mundu on-zabala,
amaibako orain-geroa,
zeuona dozue.*

*Eguna langoak,
argi-garbiak zare.
Nondik argitzen zuek ez jakin,
eta bizi nare-garbian
barru ta kanpo ez berezi.*

*Argi orren zorionak
urrindik eta ain indar-ezti
dei dagi.*

AGUR

Austria, an txoriak umeekez jolasten.
Bai, jolas, zuok, bedarño
ebaiparriaren gain,
eguzki alaiak laztan zagiezan bitartean.
Betiko aizeak ulea ta biotza
alegre gora daitsuezan bitartean.
Bizikletak arin biraka
oiuz eta agurka.

Bai, agur eta agur.
Joan eta joan zoaze.
Joan-uneke irri bizia
zurbil joanaren altzoan.

Zuok baiña oindiño pozetan galduta
jarrai orain-argiaren betierean.

(Wolkersdord, 1980)
Luis AROSTEGI

JOANAK

Emen gara barriro.
Ondo esanez
alkar agurtzen dogu.
Baiña egia ituna da.
Zuentzat ez:
zarenak zare.

Algara artean
barrenera bildu bear
bizi-arnasa billa.

Oroimenaren biotz-barrean
gelditu zare
leen-gero barri baten zain.
Laiño artetik
zirkin ta ots dagizue.

Ez orain ukatu
orduko berez-alaia,
ez orain amatau
asikerako argia.

Oi gero ta urriñagoko
gero-geroko itxaropen eder oril

Luis AROSTEGI

*Baiña gugan ez zuen argirik.
Leen-geroz gogo-illun,
maite dogu bakarrik, maite,
garbi zoli orren
izpi larrina.*

*Pozez-triste dakusgu dei
ezkutu-garbia,
eta bagoaz-edo, billa,
nora ez jakin.*

Luis AROSTEGI

BERTSOETAN

BIZKAITAR SEME

Ezbardintasun, ezbardinkeri,
emen emeak, or arrak,
naiz jakintasun, naiz jakinkeri,
emen gazteak, or zarrak.
Batukeritarrak jartzen'skuez
nun nai, or emen adarrak,
baiña gora gu ta gure euskera
gora beti bizkaitarrak.

Baserrian jaio, asi ta ezi,
ori dok ene poztasun,
euskera amaren bularretik
edatea, betetasun.
Lur zabalera abiatuta,
nengoan izu ta galdu,

baiña nire izkuntz ain ederra
nai dot mundura zabaldu.

Ainbat gerlak eta trixtasunek
egiten nabe zoratu,
aize euritsuaren ots latzak
oroimen zarrak gaurkotu.
Ene amuma iturri-lora
betiko zaitut goratu,
zure negar anpulu beroak
gura neuzkitzuz garbitu.

Zure ;orategiaren lorak
loretan lore, loradun,
loretasun lirain, zazpi lore

loreok usain goxodun.
Lau etxean, iru atzerrian
bakoitzak bere nortasun,
zazpiok zure azi bardin bat
zazpiok gara euskaldun.

Batasunerako bideetan
jo dagigun guretzako lain
gau ta egunez ta gogortasunez
beragaitik izanez zain.
Trapu zikiñak itxirik
izan gaitezcan ba anai,
danok batera abestu daigun
guk beti «euskarari baita.

MUNIATEGI'tar Asier

SABIN

*Sabin, zer dakust zure begian...
Euzkotarreen izatea...
Egiaren dirdirazko garra
ala gure bizitzia...?*

*Sur, arpegi, bizar, bekokia
argi indarretan dagoz,
zer nai dozu... zer maitatzen zagoz
biotzaren amodioz...?*

*Zer dago begi zorrotz orretan...
izar argi iduria...
arranoaren gisa al-dakusu
euzkotarreen Aberria?*

*Maitatzekoena maite dozu.
Zerutik aparte ederren...
Ala diño zure sinismenak:
Sabin euskotar izanen.*

*Begira so zure arpegira,
zabal eta garbia,*

*gizon bat eldu zen Euzkadira,
argitutzen Aberria...*

*Aberria daukazu -aurrian,
euzko gizonez josia,
baiña, nola, dakuse begiak,
ixil, bai-litz. ilerria...?*

*Biotza mindu jatzun garretan,
erriaren ezbearrez,
nire erria al da il-zorian,
lotsaz jota katei arrez...?*

*Ainbeste irain, neke, lor ta min...
ezin ikusi errian,
buru-biotzak ezin onartu
zapaltze ori lurrian.*

*Burua, ikusi alan, lotsa zan.
Biotza odol miñetan.
Lotsagekeririk ez geiago
gure lurreen egaletan.*

*Gero, irrínlzf egin zenduan,
Sabin maisua, Bizkaian;
Euzkadiko egiaren billa
euzko mugeen zabaldian.*

*Euskalerraren edestia,
gure lurraren deia zan,
euzkaldun batzar ta Lagi-Zarra
indarrez otska egozan.*

*Oitura, izkuntza ta odola
ta endaren arnas-otsa,
berezko garrez agertzen eben
euzkotar lege biotza.*

*Sabin, ez zendun ezer ukatu.
Ez bizi ta ez odol,
gorputz guztia auts egin jatzun
maitasuna eriola.*

PAULIN

OLERTI-EGUNA LARRA'N

Aurtengoa Xabier Peña'ren omenez ospatu genduan. Santi gogor dabil, baiña... guztiok begiratu bear dautsogu Eguna egokienetarikoa. Larrea, beti lez, baketsu: udagoie- etorkizunari.

nean sarritan egun zoragarriak doguz, gaurkoa lez. Ingu- ruko zugaitz-peetako orbelakaitik ez ba'litz, orrillean edo bagillean gagozela esan geinke.

Biotzak be egokitsu ta edermiñaren zaletasunez gerta- turikoak gaurko jai bikoitz edo irukoitza ospatzeko.

Kristo Erregeren egunaz bat, 22 urtetan eten bage os- patu izan da Larra'n Oleriti-eguna, eta utsik egin barik ber- toratu zan Xabier Peña.

* * *

Mezearen asieran Bernaola jaunak, aldare-aurrean ja- rririk, bertso apain eta gartsuak abots zoliz eta biotz-bio- tzez abestuz, geureak be berotu ebazan.

Meza-erdian Aita Txanton Goiria'k bardin.

Mezea bera, eraspén osoz, euskal-soiñuz eta abestiz osoturikoa ziñez.

Itzaldia aita Santi'rena. Laburkiro esanda, Jaungoi- koak edertasunez jantzi eban izadia, lurbira osoa. Olerkiz beterik, gaiñezka daurkigu berau. Gurutzeko Jon deunak be, olerki sentikorren bitartez, ingurumarian Jaunak ixuri- tako edertasuna nunai dakus eta biotz garbi ta eskerdunez goratu oi dau. Euskalerrian bardintsu, Jaungoikoak biotz zabalez ixuritako ikur eta edertasunak zelai, mendi ta itxas-bazterretan oparo dagerkiguz...

*,

Olerki-sariketa asi-aurretik argazki batzuk atera eus- kuezan aretoaren atarian, betiko tokian.

Atondoan gaztetxu batek euskal-idaztiak ebazan sal- gai. Tarteko, amar urte oneitan itxaron dogun «Oleriti» al- dizkaria. Zenbaki au laburtxuago dakusgu, irarkolara ga- raiz bialtzeko arduraz edo... Geroko baten guztiak izango dabez 150 orrialde. Urte-buruan birritan agertuko da. Ia ba, olerkariok, zuzpeltu euskalerria.

**

Aita Santi'ri lagun egiñez, A. Zubikarai ta Ugarte jau- nagaz maikide izan nintzan.

Saillak len lau ziran, orain iru. Aurkezturiko olerki-la- nak, guztiz 50.

Lirika-saillan, Luis Arostegi aita Karmeldar gaztea irabazle. Lau Ian agertu euskuzan onek, bata baiño bestea obeak. Austria'n zar-gaisoetxe baten egiiiikoa ta «Garbia» deritxona, bene-benetan zoragarriak. Arnas-estuz entzun genduzan. Berau izango ei dogu geroko baten Larrea'n Aita Santi'ren jarraitzailea, onek diñoan lez. Oindiño aita

* * *

Poema-saillan Ugarte Martin (eta ez Ugalde, DEIA egunerokoak andik egun bira et4 erdera utsez Oleriti-egu- nari buruz esan eban lez) izan zan irabazle ia urtero lez.

—X— —X— —X—

Bertsolari-saillan Agustin Beloki txapeldun.

Azkenengo bi oneik Larrea'n aspalditik ezagunak do- guz: Gipuzkoarrak. Beloki jaunak polito abestu euskuzan bere bertsoak.

**

Betiko lekuan, ondo janez eta euskal abestiz eta ku- tsuz osotu genduan bazkaria.

Ordu bete baiño geiago luzatu giñan abesten: A zan giro bedegarra! Abeslarien gidari, beti gazte dirauan Ba- lendin Aurre-Apraiz olerkari sutsua. Aita Paulin'ek lenen- go bakarrik eta gero Beloki'gaz batera, bertso-sail gogo- tsuak abestu euskuzan.

Paulin'ek Xabier Peña'ri buruz, Meza-aldian Bernaola jaunak lez, abestu eban. Ona emen aapaldi batzuk:

*Gipuzkoa'lik elorri ziñan,
Bizkai eder zonetara;
zure izate zoragarria,
eralduz Bizkai-erara;
lenen burua, gero biotza,
biur zenduan Bilbo'ra;
oso-osorik urtuz bizia,
Bizkui'ur unui-gugura.*

*Euskal jendia zurekin dago,
iñoiz baiño garlsuago;
dizdizka dago ain Ian ederra,
itza baiño argiago;
ziñan guztia opaldu zenduan,
ura baiño garbiago;
Euskalerria biurtu nairik,
sua baiño maitiago.*

Guztiok aldedu giñan pozarren, datorren urtera arte, J. L. esanaz.

Datorren urteko, omenaldia, ziur ez ba'da be, Zarate'- rena izango da.

Aita Lino Akesolo'gaz, Bernaola jaunaren berebillean Bilbo'ra bidea bost lagunek artu genduan.

ARREGI'tar Josu'k

PEÑA ALBIZU TAR XABIER

Iñoizko naste ta bizi izatezko gogoz,
aberi ametsak lorara datozenean...
Euskalerriko erpin, mendirik gorenera
igo zara (mendizale zorroa itxirik).
Zeure lurraren, aberriaren maitasunean
igo zara, begiratoki, goi argienera,
euskerea agoan dozularik, betikoz,
zeure irakasle sen ederra edaturik...

Betiko igo zara Xabier, Aitarenera,
onbidez ibili danaren atsegin, pozez;
betiraun beti-betiz, bizi izango zaran,
betiraun betizko, mendi gallur, tontorrera.
Apalki igo zara bai (txapelezko baitan),
Iainko Alguztidunaren altzo, magalera,
igo zara, betiko euskerearen laguntzan,
maitezko irripar aidekor ta loratuenez.

Iñoiz ezlakoxe ikusmira zoragarritz
atsedendurik burua, betikotasunean...
(oianak ta ibaiak, ibarrak ta aranak,
baserri mendikoi ta, ezetasun orlegiz
inguratur .ko erri eta, bazter danak)
eskuera dozuz, orain, gogozko begipean,
euzki dirdaitsuz edo, lañope aztunean,
bizi izate beraren akats eta zauriz.

Ikusten ariko zara, biotzeko zenduzan
Uzturre, Txindoki, Ernio, Larun, Kanpanzar,
Oiz, Sollube, Bizkargi, Gorbei, Aralar,
Mugarra ta Atxarre, Unbe ta Ereñozar...
Euzkadiko'ko mendi txiki ta aundiak,
erri-barruz edo itxas-ertzez (emen ta an)
opor egunetan gogo alaiz ibiliak,
aberi aldezko ikuste ta ereinketan.

Nerbion ertzetako ke ta laiño artean
itxasorañoako kai luzearen lantegizko
ekiñal ta, urduritasun etengabea...
uriaren urbidezko eta merkatalgozko
artu-emonari begira ez ete zagoz
ikusiz, zeure Ian ta ametsen Bilbao,
munduko zorabioan, bizi ala galdukoz,
zeure euskal bide-gurutzearen ibilgoa?

EUSKEREA IKUSI



Zergaitik ez ete dira erakusten euskerazko aldizkariak ?

Gizonak bere ingurua barruratzeko daukan bide edo leiorik egokiena begiak dira.

Belarriak, surrak, ikumena ta txastecnena be orretarako lagun dira, baiña indar gitxiagoz.

* * *

Orregaitik, euskerea gure barrura, euskaldunen barrura, sartzea nai ba'dogu, gure begien aurrean zer ikusten dogun kontu zeatza artu bear.

Zori txarrez gure begietatik satzen danik geiena, erdelgirokoa dogu eta orregaitik egiten jaku ain aldatz-gora euskerea ikastea.

* * *

Aspaldion zerbait aurreratu dogu: «Zorionak!» eta olakoak ikusten doguz eta saltokien izenak euskeraz be batzutan bai.

Poztu egingo gara? Kanpaiak jotzen asiko gara?

Ez. Ori gitxi, oso gitxi da. Ori, bear ba'da, euskereari barre egitea baiño ez da. Udan gure aretzetan eta urte guztian non-nai entzuten dan onen antzekoa: Jontxu! VEN!

* * *

Arlo onetara sartu garan ezker, ikus-irratia egiten dauskun kaltea ezin isildu: Barri-bide orrek orrelan jarraituaz, gure euskerea galtzea ziur lortuko dau. Ainbeste gizalditako ekiñaldiak eta gudak lortu ez daben gauzea!

Etorriko ete jaku laster euskerazko ikus-irratia? Baietz dirudi!

* * *

Baiña gaur, eta argazkien aurrean, saila txikiago bat aitatu gura dogu: gure «kiosko» edo aldizkariaren saltokien arazoa.

Olako zenbat tokitan begira jarten garan, ia euzkerazko aldizkaririk ete dagon salgai.

Eta bat bera be ez dogu ikusten!

Zertarako idazten ete dogu?

Zergaitik Euskalerrian euskerarik agiri ez?

Erru-billa asten gara beingo baten.

Geuk ete dogu errua, toki orreitarra geure aldizkariak eroaten ez doguzalako?

Baiña iñoz egin dogu alperreko lan ori!

Saltzaillen errua ete da, aldizkari orreik eskintzen t:z dabezelako edo toki agirian ipinten ez dabezelako?

Ala erosleena ete da, euskerearen ardurarik eta maite-tasunik ez dabelako?

Ala guztion artean banatu bearko ete dogu errua?

* * *

Zerbait aldatu bearko da! Bide orreatatik ez goaz ondo!

OLAZAR'tar Martin'ek
(Jon Erramun Bilbao'ren argazkiak)



Ainbeste aldizkari eta guzTiak erderaz.

GU OÑORDEKOOK

Euzkaldunok, erri batentzako zerbait garrantzi-
tsurik ba'dago, izkuntza dogu.

Gu, errikoi, baserri ta arrantzale, euzkal oiñorde-
koo'k; gu, anei edo millak urteetan gure izkuntza bizi-
rik eukiteko gaur arte, ulermen edo ulerpiderik bear
ez dogunok; gu, oraintzura arte apaltasun-azpian
bizi izan garanok; gu, euzkal anai erdeldunaren ba-
rregarriak izan garanok, ez al gara eskubidedun gure
izkuntz-izaeraren jarraitzaileak izateko?

Ala orreik, Salamanca edo erbesteko ikastetxe
nagusietan, a.e.i.o.u. ikasi dabenak, oraintzura arte
gastelar izkuntz-zaleak, euren mingain labanakin
goitik bera begiratzen cuskunak al dira gure izkun-
tzaren irakasleak?

* * *

Negargarria da gaurko idazkera. Gu, betiko euz-
kaldun garanok, ezin doguz irakurri gaur azaltzen di-
ran idazkerak.

Nik diñot ba: Ulertzen al dabez eurak, idazlariak,
euren idazkiak?

Oso zailla da irakurlearen eritxia jakitea, baiña,
• ziu-ziu nago, nere idazkiak, askoz ere errezagoak
dirala, bai irakurri ta bai ulertzeko.

Zergaitik ez gara asten danok batera errikoi iz-
kuntzarekin?

Euzkaltzaindia, ez al da jausten bere zitalkeri or-
tatik? Euzkaltzaindia'n dabilen euzkerarekin, «euz-
kera batua» lortuko dala uste dabe?

Ez al dau ikusiko zitalkeri ortan, euzkel sakaban-
keria lortzen dabilela?

Negargarria da bai, gaurko euzkeraren giro au.
Euzkaltzaindia'tik, zintzotasunezko euzkotar guztiak
baztertuak izan diranetik, gure izkuntzak, ez dauka
nortasunik.

Egunetik egunera, euzkal irakurleak gitxitzen
doiaz, nik, alan ikusten dot nere ixilleko galdekuntze-
tan; baita ere jakiñekoa da, len baiño euzkal idazti

gitxiago saltzen dala ta, egia esan, gure izkuntza, ajo-
la edo ardura galtzen doiala.

Nork irakurtzen ditu «DEIA» ta «EGIN»'en
agertzen diran euzkel idazkiak?

Neuk beifiepein, ezin dot; idazki orreik irakurtze-
ko, zentzun geiegi ipiñi bear izaten dot-eta. Alan ere,
ez naiz argitzen, eta len baiño gaizkiago geratzeko-
tan, oba irakurri ez.

Euzkaltzaindi-barruan, ez dot uste alkar aitzen
diranik. Nik uste dot danak dabilzazela bakoitza
bere bide okerretik eta, batez ere euren gogoaren aur-
ka.

Leioa'ko batzarrean, auxe egertu zan: «J. San
Martin, defendio la tesis de que el sistema verbal de
Eibar contiene las formas verbales del dialecto occi-
dental que conocemos por vizcaino» («EGIN»,
29/8/80).

Zertan zabiltz San Martin jauna?

Zure gogapenaren aurka ibiltzea al da gizontasu-
na?

Eibar'ko aditz ederra baztertu nai al dozu? Zer-
gaitik?, atsekaberen bategaitik? Ala, bizkaitar usai-
nekoa dalako? Zuk gaur darabiltzun cuzkerarekin,
ospe geiago aurkituko dozula uste dozu? Ala, euzkal
izkuntzak, Cervantes bat ez daukan lez, zure euzkera
nastuarekin gorengo gallurrera eltzea uste dozu?

* * *

Ainbat gauza esan neike baiña luzetxuegi izan li-
tzaken lez, oba ez jarraitzea, baiña, ori bai, San Mar-
tin jauna, Eibar'ko aditza, onenatarikoa dala uste
ba'dozu, azterketa sakon on bat egizu eta, zure ba-
rruko ezaguerak esaten dautzuna, lotsa berik egizu
erriaren aurrean.

CUBA BARRUTIK (V)

CUBA'KO SENDIAK

Cuba'ko sendiak, geienbaten, bardintsuak dira: asiera baten, euren buruak ederretsi ostean, dauken dana eskeintzen dautzue; beintzat aoz one-la izaten da, euki, ezer euki ez ba'-dauke be. Geienak ez dauke etxeetan, ezer; gauza batzuk aitatzekean oneik izendatuko neukez: ura, limoiren bat edo beste, azukera apur bat eta «Dai-kiri» izeneko euren edaria egiteko be-dar batzuk.

Eurena eskeiñi-ostean, norberena eskatu barik be ez dira geratzen. Eta eskatzen asi ezker, eskatzea erreza danez, danetarikoa eskatzen dautzue. Onetarako euren gose, bear-izan eta txirotasuna azaltzen dautzuez, ostean arraza, txarrikia, ja-boia, akeita, esnea eta beste zeozer eskatzeko.

Irakurleak guzti au obeto ulertu dagian, janariez zerbait esan bearra dot: kubatarak ezin dabe nai dabe-na guztia erosi, ez nai daben dende-tan erosi. Janari-erosketetarako txartel batzuk dabez, eta txartelean agertzen dana bakarrik etxeratu da-gikee. A tzerritarak, oster, beste denda berezi batzuk genduzan, nai genduana erosteko. Emendik kubata-rrak atzerritarrei euskuen «maitasu-na», gugandik zeozer lortzeko asmo-tan.

SENDIAREN OGIBIDEA

Geienetan senar-emazte danak egiten dabe lan. Lanean ez dago ez-bardintasunik: emakumeak edozein lanetan ikusten dira: etxegintzan, arotz edo argin lanetan, garbiketetan, kañaberatan, akeita edo tabakoa batzen, eta abar eta abar...

Emakumeen beste lan mota batzuk aitatzekeotan, neuk ikusitako beste oneik be aitatuko ditut: ertzaintza, medikutza, irakaskintza, gaizo-zain-tza eta abar...

ZENBAT SEME?

Geienbaten aita batenak bi edo izaten dira. Beste norbaitegaz izan-dakoak beste ainbeste edo geiago.

Egia esan, umeen eziketak ez dau-tse diru arazorik sortzen gurasoei: eziketa guztia doan da. Beintzat lee-nengo amar urteetan onela izaten da. Amar urtetik aurrerantzean ez dabe dirurik ordaintzen, baiña ume bakoit-zak urtean 45 egunean Estaduaren alde lan egin bear izaten dau. Egun oneik patata, tomate, piper, akeita edo beste zeozer batzen igarotzen ditu soldatik artu barik. Beraz, ezin dagikegu esan eziketa osoa doan da-nik be.

Gure gizarteko bizikerara au ez da ain ulerterreza, eta gitxiago izango da umeen lan oneitan gertatzen dana aitatzen dautzuedanean: umeen lan

oneitan uztarik erdia alperrik galtzen da, baiña ez umeen erruz, erakunde ezagaitik baiña. Eta ari esatean, ez dot gogoan artzen umeen lana ondo ala txarto eginda dagoen: Beraz er-dia baiña ainbat geiago galtzen dala esango neuke.

Kubatarren gose egoera aztertu eta uzta-bilrze oneitan gertatzen dana ikusi ezker, arazoa saminga-riago biurtzen jaku.

AMAR URTETIK BEERAKOAK?

Amarretik gorakoak lan egiten ba'-dabe, txikiagokoak beste zeozertxo egin bear lanaren «ordez»: elburua Estadia da-eta, aal dala, umeak onen serbitzari biurtu bear dira. One-tarako amar urtetik beerako umeak urtean 15 egun «Pioneroa» izeneko taldeetan sartzen dabez, gurasoen-gandik bananduta bizitzen ikasi da-gien.

UME ARGIAK

Leen ikasketetan besteak baiña ar-giago diran umeak, ikastetxe berezie-tan sartzen dabez. Onetan be ez da ikusten bardintasun aundirik. Demo-krazia bai, baiña norbera nagusi da-la.

(Jarraitzeko)

Piru LEGARRETA

ASTIRO

DURANGO'TIK

Gure batzoki zoragarria
 anaiak bertan alkartzeko,
 baiña tamalez mailla asko daukaz
 bertaraiño igoteko.
 Barrura sartu: Areto ederra,
 bertan jarrita egoteko.
 Akeit osoa artuta gero,
 mus-aldi batzuk egiteko.

* * *

An okolluan yurretarrak,
 oneik euskeraz abesteko.
 Arratsaldia igaro-eta,
 poz-pozik etxeratzeko.
 Anaitasuna ta eukeltas.ana,
 bear dira onetarako.
 Geure aberria maitatuf:ta,
 egiz berau maitatzeko.

Agur anai ta lagun maitiak,
 agur bai, baiña ez betiko.
 Barriro bere etorriko gara,
 alkarrekin egoteko.
 Ta abestukoguz zortziko zarrak,
 geure-geureak diralako.
 Ta gora Euzkadi didar eingogu,
 egiz maite dogulako.

* * *


Izpar itun bat artu dogu ba,
 geure biotza samintzeko.
 Goiko Jaun onak eroan dauku,
 lagun maite bat betirako.
 Artu egizu goi-donokian,
 berbiz anaia betirako.
 Egun andia datorrenian,
 danok alkar ikusteko.

LONTZI'k

8a



- | | |
|-------------------------|-------------------------|
| 12 IZKI'koak | ala |
| emigrado | yo mismo |
| | deda |
| 9 IZKI'koak | 2 IZKI'koak |
| reloj | los, las |
| 8 IZKI'koak | dos |
| atrasarse | gusuno |
| torcer | yo |
| 7 IZKI'koak | destino (nombre propio) |
| velada | poder |
| alcalde (el) | to mismo |
| caserio, aldea | bueno |
| obra literaria | ahi |
| disgusto | proximo, cerca |
| llegada | |
| medianoche | |
| 6 IZKI'koak | |
| condición (modo de ser) | |
| pera | |
| atención | |
| mover | |
| visitar | |
| pulmon | |
| 5 IZKI'koak | |
| tiene | |
| sacar | |
| acción pobre | |
| ser, naturaleza! | |
| 4 IZKI'koak | |
| coger | |
| oro | |
| 3 IZKI'koak | |
| hilo | |
| mesa | |
| exclamacion | |
| nosotros | |
| villa | |
| palabra | |
| manera | |



EUSKERAZALEAK

Guttenberg'ek irarkolarako lanabesik bearrezokoenak asmatu zituanean, lan aundi bat egin eban gizartean jakintza zabaltzeko bideetan.

Asmakizun onuragarria berea!

* * *

Euskalerrira berandu-samar eldu jakun asmakizun goragarri au erabiltea. Gu, berbako gizonak be ba-giñan-eta, ez giñan ain gogotsu sartu irarlolarearen bideetara. Eta, orregaitik ete da?, gaur be ez gara irakurten zaleak. Irakurtekotan be erderaz idatzia naiago sarritan. Durango'ko azokan euskerazko ainbeste liburu ikuseak poztu gaitu.

* * *

Bearrezko gauzea eta guztiz egokia dogu izparringien eta aldizkarien alde zabalkundea egitea, naiz-ta zabalkunderik ederrena, euskera garbiz, ederrez eta ulerterrezez idaztea izan.

Eta onetan, urria da aspaldiko zabalkundea!

* * *

Eta zabalkundea egitean, neurriak estu ipiñi eta baldintza zorrotzak ezarri? Zuek ez zaree euskal-aldizkaria eta zuek ba-zaree, asi?

Egoera larria, bai, euskera idatziarena, eta euskaldunak eurak egoera ori larriago biurtzen.

* * *

Dana dala, jarraitu dagigun aurrera, idatzi ta irakurri.

Eta lagindu dagiegun aldizkariai, euskerea zabaltzearen gatxa egokiro bete dagian.

Gaur-egun gastuak gora ta gora doaz eta laguntza bear dogu.

OLAZAR'tar Martin'ek

GOIZ-ARGI

Erribideko aldizkaria
Bizkaieraz
Gipuzkoeraz
Erderaz
BARRIAK ETA ARAZOAK

SASKI-NASKI

ERRIBIDEKO ALDIZKARIA
Bizkaieraz
Gipuzkoeraz
munduko goraberak, jazokizunak, barregaiak...


ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

Coupe en nosotros

Zerre nortea gurean



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA**